

PARTE HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA

Gaia: hilerriaren erregimen eta funtzionamendurako erregelamenduari buruzko aurretzako kontsulta publikoa [2026ZUD00002]

1. Aurrekariak:

Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua behartzen du araudi proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publikoa egitera.

Kontsulta publikoaren horren xedea da herritarrek eta kontu hauetan zeresana izan dezaketen erakundeek ondorengo puntu hauei buruz zein zer iritzi duten jakitea:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa kontuan hartuta, Zerbitzuen Departamenduak udal hilerriaren erregimen eta funtzionamendua arautzeko erregelamendua onartzeari buruzko arau-ekimenari dagokion alde aurreko kontsulta publikoa abiatzea bideratu zuen.

Halaber, 2026ko otsailaren 23ko 354 zenbakidun Alkate Dekretuz onartu zen aipatu erregelamendua kontsulta publikora ateratzea, eta udaleko barne prozedurari jarrikiz 20 egun baliouduneko epean ezarri zen iradokizunak aurkezteko, udalaren web atariaren bitartez.

Ekarpenak egiteko epea 2026ko martxoaren 25ean amaitu zen.

2. Jasotako ekarpenak eta erantzuna:

Epearen barruan bi iradokizun jaso dira.

Lurralde Antolaketako AOTak egindako txostenak honela dio, hitzez hitz:

“Herritarrek adierazten dute, gaur egun, ez dela ehorzketarekin lotutako arazorik antzematen, herritarrek nagusiki erraustearen hautua egiten dutelako.

Ondorioz, ez dute beharrezkotzat jotzen nitxo eta panteoien eremua handitzea. Hala ere, azpimarratzen dute ezinbestekoa dela egindako ehorzketak eta errauts-kutxatilen guneak bermatzea. Era berean, adierazten dute nitxo eta panteoietako ehorzketa-eskubideak mantendu behar direla.

Ekarpenei erantzuna:

Gaur egungo testuinguru sozialari erreparatuta, baiezta behar da gero eta nabarmenagoa dela errausketaren aldeko joera.

Horrek eragin zuzena du hilerrien plangintzan; izan ere, tradizionalki garrantzi handia izan duten nitxo eta panteioen eskaria ez da lehen bezain handia. Ondorioz, ez da lehenetsun nagusia, gaur egun, azpiegitura horien hedapena.

Hala ere, argitu behar da Erregelamenduaren berritzearen helburua ez dela soilik edo nagusiki nitxo eta panteioen eskaera kuantitatiboari erantzutea. Funtsean, arrazoi nagusia egungo araudia eguneratzeko premia da, kontuan hartuta indarrean dagoen araudia 1994koa dela eta, beraz, zaharkituta geratu dela hainbat alderditan.

Denboraren poderioz, lege-eskakizunak eta gizarte-ohiturak aldatu egin dira, eta horrek araudiaren egokitzapena eskatzen du, segurtasun juridikoa eta kudeaketa egokia bermatzeko.

Proposatutako aldaketen artean, bereziki azpimarratzekoak dira emakida-epeen mugatzea, lege-esparrura egokitzeko; gaur egungo hilobi-moten definizio argia, interpretazio desberdinak saihesteko; eta, bestetik, ehorzketa-eskubideen titularren arteko eskualdaketa ahalbidetzea, betiere baldintza jakin batzuk ezarrita.

Herritarren ekarpenei dagokienez, jasotako iritzian azpimarratzen da beharrezkoa dela ehorzketak, errautes-kutxatilak eta ehorzketa-eskubideak mantentzea. Ildo horretan, adierazi behar da Erregelamenduaren berritzeak helburu horiek bermatzea duela xede. Oñatiko Hilerriko Erregelamendua egungo errealitate sozialera egokitzea da berritzearen helburu nagusia.

Horrenbestez, egindako ekarpenak aintzat hartuko dira araudiaren idazketan, iritziak bat baitatoz adierazitako beharrekina eta interesekin.”

Horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, txosten hau egin da.

Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan

PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA

